

Memoria honek Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1998an burutu dituen jardueren berri ematea du xede.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea 1984ko 4/1984 Legearen bidez sortu zen (gero, harako lege hura 15/1994ko Legeak aldarazi zuen) eta **ekainaren 27ko 9/1997 Legearen** bidez abiarazi.

Era horretara, Batzordearen Jardunerako Araudia onesteko oinarritzko arauak 1997ko abenduaren 18ko osoko bilkuran ezarri ondoren, 1998ko lehenengo seihilekoan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak eguneroko jardunari ekin diezaion beharrezkoak diren oinarri teknikoak, materialak eta pertsonalak ezarri dira. Horri guztiari esker, eskatutako lehenengo txostenak egin dira eta Txosten Sozioekonomikoa abian jarri da, bai eta jardueren memoria hau egiten hasi ere.

Honako memoria honek ohiko egitura dauka: lehenengo kapituluaren sorrera, izaera, osaera, egitekoak, organoak eta jarduna aurkezten zaizkigu; kapituluaren eranskinean, Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta lan batzordeak nola osatzen diren bildu da.

II. kapituluaren, Batzordearen funtzioen laburpena egin da, hura sortu zuen Legean aurreikusi diren funtzioak, hain zuzen. Aipatzekoa da lehenengo sei irizpenak egin direla eta Batzordearen beraren ekimeneko gaiak ikertzen eta aztertzen hasi direla. Halaber, nabarmentzekoa da lehenengo Memoria Sozioekonomikoa gertatu eta argitaratu dela, halaxe aurreikusi baitzen Batzordeari buruzko Legean. Memoria "Euskal Autonomia Erkidegoaren Egoera Sozioekonomikoa 1997 – Urteko Memoria" izenez argitaratu da eta bertan, hainbat datu eta iritzi aurkitu ahal dira, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideen elkarrizketaren, adostasunaren eta hausnarketaren frutu; zalantzarik ez dugu balio handikoa izango dena irakurtzen dutenentzat.

III. kapituluak erakundeekiko harremanak eta batzordeburuaren eta idazkari nagusiaren bidez Batzordearen partaidetza izan duten jarduerak ditu hizpide.

IV. kapituluak, ordea, labor-labor bada ere, bitarteko material eta giza baliabideen kudeaketaren berri emango digu, 1998ko ekitaldian. Gai horren inguruan, esan beharra dago berezia izan zela, langile teknikoak eta administraziokoak ez baitziren lanean hasi urtearen erdi aldera arte eta lan batzordeek ere, 1997ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren erabakiz eratuak, ez zioten jardunari ekin urteko bigarren seihilekora arte.

Azkenik, V. kapituluaren Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplikatzekoa zaion araugintzako legeria bildu da.

Bukatzeko, nabarmendu gura dugu Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, beste erakunde batzuekin batera, baduela egitekorik gure gizartea eraikitzen eta egituratzen. Batzordea elkarrizketarako eta eztabaidarako erakunde-plataforma dugu, zeren eta batzordean hainbat gizarte-erakunde eta erakunde ekonomiko baitaude ordezkaturik eta hortaz, uste dugu batzordekideen artean eta batzordekideen eta Jaurlaritzaren artean etengabeko harremanak izateko bide izan behar duela Batzordeak, haien arteko harremana hobea eta lankidetzat alde bietakoa izan dadin.

Fco. Javier Mongelos Oquiñena

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN BURUA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, sortu zenetik aurrera, erakundeen garapen eta ordezkartzako jarduera bizia garatu du, batez ere batzordeburuaren eta idazkari nagusiaren bidez gauzatu dena.

Era berean, Batzordeko langile teknikoek, lanean hasi zirenez gero, hainbat hitzaldi, mintegi, jardunaldi, ikastaro eta hausnarketarako forotan parte hartu dute.

Hori guztia egin da behar-beharrezkotzat jotzen delako lankidetzarako harremanak izatea Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako beste batzorde batzuekin, bai eta antzeko gaitan jarduten duten beste instituzio eta erakunde batzuekin ere. Azpimarratu nahi dugu baita, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko hainbat erakunderekin harreman onak garatu ditugula, bai Jaurlaritzarekin, bai Legebiltzarrarekin. Baina ez hori bakarrik, erakunde edo elkargo profesional, unibertsitate, elkarte, enpresa eta oro har, gizarte interes antolatuaeren ordezkari diren eta gizartearen eta ekonomiaren garapenean laguntzen duten erakundeekin ere izan baititugu harremanak.

Era berean, batzordeburuak eta idazkari nagusiak, euren funtzioa betez, buru-belarri jardun dute Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean ordezkartzat duten erakunde eta instituzio guzti-guztiekin hitz egiten, hain zuzen sindikatu, enpresari, merkataritza, industri eta nabigazio ganbara, aurrezki kutxa eta finantza erakunde, kooperatiba, sozietate anonimo laboral, arrantzako eta nekazaritzako erakunde, kontsumitzaileen erakunde eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

HARREMANAK EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

1995eko uztailaren 27an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen osoko bilkura lehenengoz bildu zen; Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu jaun txit gorena bertan izan zen eta hitz egin zuen.

1995eko urriaren 11n, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eratze-ekitaldia egin zen; Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jaun txit gorena eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu jaun txit gorena bertan izan ziren eta hitz egin zuten.

1995eko azaroan eta abenduan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak zenbait erakunde-bisitaldi egin zituzten eta besteak beste Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jaun txit gorena, Eusko Legebiltzarreko burua, Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea, eta Eusko Jaurlaritzako sailburu guzti-guztiak bisitatu zituzten.

HARREMANAK EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BESTE BATZORDE BATZUEKIN

1995eko azaroaren 15ean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Madrilgo Batzordeari bisita egin zioten.

HARREMANAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

1995eko abenduaren 13an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak Lan Harremenetarako Batzordeari bisita egin zioten.

HARREMANAK EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

1996an zehar, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak zenbait bilera eta bisitaldi egin zituzten; besteak beste, Eusko Jaurlaritzako sailburu guzti-guztietan eta zenbait sailburuorde eta zuzendari nagusiri bisita egin zieten.

Halaber, 1996an ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak harremanak eta elkarrizketak izan zituzten Eusko Jaurlaritzan ordezkariak duten alderdi guztietako parlamentario zenbaitekin; ildo honetan, 1996ko abenduaren 4an Legebiltzarraren aurrean agertu zirela aipatu behar.

HARREMANAK EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BESTE BATZORDE BATZUEKIN

1996ko urtarrilaren 16an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Estatuko Batzordeari bisita egin zioten.

1996ko otsailaren 1ean eta 2an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen burua eta idazkari nagusia Montpellierran izan genituen ekonomia eta gizarte arazoetarako Europako batzordeei buruzko mintegi batean.

HARREMANAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

1996eko otsailaren 15ean Britaina Handiko Enbaxadako Ekonomi Kontseilariak bisita egin zion Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari.

1996ko maiatzean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak zenbait harreman eta bilera egin zituzten Euskal Herriko Kontu Auzitegiarekin.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN PARTEHARTZEA ZENBAIT EKINTZATAN

1996an, hala EGABen burua nola idazkaria hainbat lekutan egon ziren Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkari gisa. Ekonomiaren eta gizartearen arloan diharduten hainbat erakundek, esaterako AFMk, APDk, ELKARGIk, UPV/EHUK, LANGAIK, BBK-k eta Zamudioko Teknologi Elkarteak antolatutako jardueretan edo jardunaldietan parte hartu zuten.

HARREMANAK EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

Aurreko urteetan bezala, 1997an ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak Eusko Jaurlaritzako sailburuekin hasitako harremanekin jarraitu zuten.

Halaber, 1997an ere, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen buruak eta idazkari nagusiak Eusko Jaurlaritzan ordezkariak duten alderdiekin hasitako harremanekin jarraitu zuten; ildo honetan, 1997ko ekainaren 26an Legebiltzarraren aurrean agertu zirela aipatu behar.

1997an baita, harremanetan jarri ziren Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

HARREMANAK EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BESTE BATZORDE BATZUEKIN

1997an, harremanetan jarri ziren Valentziako, Santanderko, Gaztela-Leongo eta Estatuko batzordeekin, unean-uneko bilerak eginez eta zenbait mintegi eta jardunalditan parte hartuz.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN PARTEHARTZEA ZENBAIT EKINTZATAN

1997an, hala EGABen burua nola idazkaria hainbat lekutan egon ziren Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkari gisa. Ekonomiaren eta gizartearen arloan diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundek, esaterako BBV Fundazioak, Bilbao Bizkaia Kutxak, APDK, Elkargik eta beste batzuk antolaturiko jardueretan edo jardunaldietan parte hartu zuten.

HARREMANAK EUSKO JAURLARITZAREKIN ETA EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

Aurreko urteetan bezala, 1998an, Eusko Jaurlaritzako sailburuekin erakunde-jarduera bizia izan dugu. Lehendakariorde jaunarekin ere egon gara, eta aipatzekoa da Jose Antonio Ardanza Lehendakari jaun txit gorenarekin 1998ko azaroaren 10ean egin genuen bilera, hark bere kargua utzi aurretik.

Era berean, Eusko Legebiltzar berria eratu ondoren, Juan Maria Atutxa legebiltzarraren buruarekin bildu ginen.

HARREMANAK EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BESTE BATZORDE BATZUEKIN

1998an, harremanekin jarraitu zen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako autonomietako batzordeekin, bai eta Estatukoarekin ere. Horiekin, guztion intereseko gaiak jorratu ziren, beste batzuen artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzorde guztiek batera WEB orria ateratzeko aukera aztertu zen.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN PARTEHARTZEA ZENBAIT EKINTZATAN

1998an, hala EGABen burua nola idazkaria hainbat lekutan egon ziren Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ordezkari gisa. Esaterako, Eusko Jaurlaritzak eta Europar Batzordeak 1998ko apirilaren 21ean antolatu zuten nazioarteko konferentziaren barruan antolatutako hitzaldian egon ziren. Hitzaldiaren izenburua "Kudeaketan parte hartzea" izan zen, langileak enpresaren kudeaketan parte hartzearen inguruan. Oñatiko Unibertsitatean 1998ko ekainaren 16an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeaz egin zen hitzaldian ere parte hartu zuten.

Aldi berean, azpimarratu beharra dago UPV/EHUK, Menéndez Pelayo Unibertsitateak, ADEGUIK, APDK eta UGTK antolaturiko ekintzetan parte hartu duela, bai eta Coopers & Lybrand-ek antolaturiko Bizkaiko Ekonomiaren I. Enpresa-topaketetan eta beste hainbat ekintzatan ere. Horrek agerian uzten du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen garrantzia, agerian jartzen du erreferentziako erakundea dela Euskal Herriko ekonomiaren eta gizartearen arloko jardueren barruan.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, bere helburuak betetzeko, baditu ekonomi baliabideak. Baliabide horiek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan zainpetzen zaizkio eta esan beharra dago 1998an baliabideak behar bezala kudeatzeko administrazio zerbitzuez eta zerbitzu teknikoek hornitu dela Batzordea.

AURREKONTUA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aurrekontua 250 milioikoa izan da 1998an. Kopuru hori, oso-osoan, EHAEn Aurrekontu Orokorren pentzura finantzatzen da.

Ondoren, 1998ko aurrekontuaren itxiera aurkeztu da. Aipatzekoa da betearazpen maila %60koa izan dela baina badu horrek arrazoirik: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eguneroko jardunari ezin izan zitzaion ekin harik eta Batzordean langile teknikoak eta administrazioako lanean hasi ez ziren arte. Ondorioz, Batzordeari buruzko Legean eta Araudian aurreikusitako jarduerak urtearen erdi aldean hasi ziren garatzen. Horregatik, azpimarratu egin behar da **1998ko ekonomi ekitaldiko aurrekontuaren betearazpen-maila apartekoa izan dela.**

1998rako aurrekontua ondoko kapituluetan banakatu da:

BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardunerako Araudia onetsi eta Batzorderako langile tekniko eta administrazioakoak hautatu eta horiek lanpostuez jabetu ondoren, instalazioak, egoitzak eta ekipamenduak egokitzeari ekin zaio 1998an.

Illo honetan, beharrezkotzat jo da informatikako toki-sarea ezartzea, egiten den lanaz edozein langile baliatzeko, biltegitzen diren datuak eta inpresio sistemak eurak ere guztion eskura egon daitezen. Era berean, postu guztiak Internet sarera konektaturik egotea ezinbestekotzat jo da eta horri esker, hainbat eta hainbat datu-basetara sartzeko eta urrunetik konexioak egiteko aukera daukagu.

Beste alde batetik, 1998an Batzordearen egoitzak egokitu dira. Izan ere, langile tekniko eta administrazioakoak lanean hasi direnez eta Batzordeak ere bere eguneroko jardunari ekin dionez, egokitzapenak egin beharra egon da.

Halaber, Batzordearen instalazioetan behar zen ekipamendua sartu da, Liburutegia jarri da eta egoitzak handitu egin dira, bileretarako areto berriak eginez.

GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

1998an, egoki diren hautaketa prozesu publikoen bidez, guztira 8 pertsona kontratatu dira: ikasketa eta proiektuen arduradun 2, dokumentazio eta kanpo harremanetarako arduradun 1, administrazio eta zerbitzu orokorretako arduradun 1, zuzendaritzaren idazkari 1, administrazio laguntzaile 2 eta mandatari gidari 1.

EGABi buruzko legean jaso denez, erabakiak hartzeko sistemaren bidez beto-eskubidea ematen zaie erakunde batzuei, eta, ondorioz, adostasuna ezinbestekoa duen erakunde batean erabateko adostasunik ez egotea ekarri du. 1998ko Jardueren Memoriaren zirriborroan, Batzorde Iraunkorrek II. kapitulua ezabatu du, "AURREKARIAK ETA BILAKAERA HISTORIKOA" atala, orain arte EGABeko zerbitzuek gertututako hasierako agirien artean zegoena.

Ez dugu ondo ulertzen zergatik ez daukan iritzi publikoak EGABeko hasierako jardueren berri, sortu zeneko jardueren berri jakiterik. Informazio hori Batzorde Iraunkorraren esku jarri da, beraz, prestaturik dago eta EGABeko kideen eta erakundeen artxiboetan egongo da.

EGABen sorrerari buruzko informazioa da, sortu eta gero, harik eta EGABek beraren arautegia eduki ahal izan zuen arte, Legebiltzarrak onetsi zituen lege-aldaketak ere agertzen dira.

Aldi berean, legeetan egin behar izan ziren doikuntzen zioak edo arrazoiak ere azaldu eta jakinarazten dira.

Aurreneko osoko bilkurako erabakien berri ere eman dira, hain zuzen EGAB sortarazi zeneko erabakien berri. Erabaki horiek lotaraztekoak dira.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko barne karguen izendapenak jakinarazten ditu.

Eta bukatzeko, lantaldeak Araudia gertutzeko egin beharrekoak aipatzen ditu eta ekainaren 27/9/97 Legearen aipamena egiten du, EGABen gaurko euskarri den legearen aipamena.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko jardueren informazioa memoriatik kentzearen aurkako botoa, boto partikularra eman dugu.

RAÚL ARZA VÉLEZ ETA FÉLIX PÉREZ CARRASCO

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide, UGTren ordezkari gisa

LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide, CC.OOren ordezkari gisa

AURREKARIAK ETA BILAKAERA HISTORIKOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen bilakaera, arauen bilakaerari dagokionez, ondokoa izan da: Batzordea 4/1984 Legearen bidez sortu zen; gero, 15/1994 Legeak harako lege hura aldarazi zuen eta azkenik, berriz idatzi zen legea eta une honetan, ekainaren 27ko 9/1997 Legea dago indarrean.

BATZORDEA SORTU ZUEN LEGEA: 4/1984 LEGEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen azaroaren 15eko 4/1984 Legearen zioen azalpenean jaso zen legez (E.H.A.O., 207. zk., 1984ko abenduaren 6koa), beharrezkotzat jo zen kontsulta-organo bat eratzea, autonomiaduna eta Jaurlaritzatik kanpokoa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko agente ekonomiko eta sozialen partehartzea izango zuena, eta horien arteko elkarriketa eta lankidetzat bultzatuko zituena.

Aldi berean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordeen aurrekoak aztertu ziren. Azaldu zenez, *“Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako gaurko batzordeen aintzindariak lehen mundu gerra bukatu osteko urteetan sortu ziren. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bulegoa sortu zen nazioarteko bilgune gisa; bertan, gobernuak, langileak eta enpresa-gizonak parte hartzen zuten guztion artean laneko baldintzak hobetuko zituen nazioarteko legeria gertutzeko asmoz. Harrezkero, Europan sortzen hasi ziren gaur egun Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordeak direnak”*. Frantzian era horretako lehenengo erakundea sortu zenez gero, Europako beste herri batzuetan antzeko erakundeak eratu ziren eta sarri askotan, euren konstituzioetan ere jasotzen ziren. Ildo honetan, bada, Europako Ekonomi Elkarreak berak ere, bere erakunde ospetsuenen artean, Ekonomi eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortarazi zuen.

Guzti hartatik ondorio argia atera zen: ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeetan aniztasuna zen nagusi, osajerari eta jarduteko araei zegokienean, baina gauza batean bat zetozen izaeran eta eginkizunetan: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordea *“kontsulta-organoa da, ahal den neurrian agente ekonomiko eta sozialen ordezkariak gobernuen politika ekonomikoan parte har dezaten bilatzen duena, euren artean elkarrizketa eta lankidetzaz bultzatuz”*. Azpimarratu zen batzordeek ez zutela jarrera pasiborik azaldu, bazutela ekimena iradokizunak edo erabakiak aurkezteko, gero tokian tokiko gobernuak kontuan haiek hartzeko.

Aipatu dugun guztia oinarri, Eusko Jaurlaritzak garrantzitsutzat jo zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko Legea aurkeztu baino lehen, alderdi politikoeekin, sindikatuarekin eta enpresario-taldeekin harremanetan jartzea, ahalik eta modurik gardenenean, Euskadiko politikaren, ekonomiaren eta gizartearen egoerari gehien egokitzen zitzaion sistema sortzeko.

Hori guztia kontuan hartuz, 4/1984 Legearen bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortzea erabaki zen. Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako batzordea *“kontsulta-organoa izango da, agente ekonomiko eta sozialen ordezkariak gobernuen politika ekonomikoan parte har dezaten, eta beraren nortasun juridikoa izango du eta Gobernutik kanpo egongo da bere eginkizunak burutzeko”*.

Batzordearen osaerari dagokionez, Gobernuak ez egotea erabaki zen, ez zuzenean ez zeharretara, eta erabaki zen baita 28 kidek osatuko zutela, zazpina ondokoetatik: langileen sindikatuen ordezkariak; enpresarioak, Autonomia Erkidegoan duten ordezkariak industrialaren bidez; ekonomiaren eta gizartearen arloko zenbait erakunde edo entitateko ordezkariak eta aditu independenteak, irakaskuntzaren, ikerkuntzaren eta gizarte zientzien arloek ere Batzordean ordezkariak izateko.

Halaber, lehenengo legeak, Batzordearen funtzionamendu araei dagokienez, Batzordeak berak onetsi beharreko araudia zuen ardatz. Bertan ezarri zenez, *“Batzordeak beraren funtzionamendu araudia gertutuko du, bai eta bere eskumenekoak diren gaietako erabakiak gehiengoz hartzeko modua ere”*.

Beste alde batetik, Batzordearen funtzionamenduko finantzaketa araubideaz, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan partida berezia agertu behar dela jaso zen eta baita Batzordeak beraren aurreproiektua gertutu behar zuela ere gastuen egoerari buruz; gero, aurreproiektua *“Gobernuari bidaliko zaio, honek onetsi dezan eta Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan sar dezan”*.

Xedapen gehigarrietarik lehenengoan jaso zenez, hogeita hamar egunen buruan izendatu behar dira Batzordeko kideak, izendatzeko eta eratze-bilkuraren deialdia egiteko.

LEGEA ALDARAZI BEHARRA: 15/1994 LEGEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea aldatzeko ekainaren 30eko 15/1994 Legean jaso den legez (EHAO, 142. zk., 1994ko ekainaren 27an), Batzordea ez zen batere eraginkorra izan sortu zen unetik bertatik; izan ere, hainbat oztopo izan zituen abiarazteko, barne funtzionamenduari buruzko araudia onestea ere eragotzi zutenak.

Horri buruz, 15/1994 Legearen zioen azalpenean ondokoa bildu zen: *“Batzardea eraginkorra izateko eragozpenik handiena erabakiak hartzean dagoela ematen duenez, Legean alderdi horretan sakondu da bereziki eta zera ezarri da, erabakiak boto-eskubidea duten talde guztien gehiengo soilaren bidez onetsiko direla”*.

Aldi berean, Lege berri honek, batzardea sortu zuen legea zati batean eraldatu zuen, agenteek egokitzat jo zituzten unean-uneke aldarazpenak eginez. Besteak beste, batzardeko kide kopurua gehitu zen, *“Batzardean dauden talde guztiek Ekonomia eta Gizartea Arazoetarako Batzarde batek izan behar duenarekin bat datorren ordezkari-tza eduki dezaten”*.

Hala, bada, Batzardea 32 kidek osatzea erabaki zen, honela:

- a) multzoa: zortzi ordezkari, sindikatu edo sindikatu-erakunde nagusienek euren ordezkari-tzatasunaren arabera izendaturik.
- b) multzoa: zortzi ordezkari, Euskal Enpresarien Elkartek izendaturik.
- c) multzoa, zortzi ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko ondoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteek izendaturik: Merkataritza, Industria eta Nabigazio ganbarak; aurrezki kutxak eta finantza erakundeak; kooperatibak; sozietate anonimo laboralak; arrantzaleen kofradiak; nekazarien elkarteak; kontsumitzaileen elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- d) multzoa, zortzi aditu, koalifikazio eta esperientziadunen artean izendaturik.

Era berean, funtzionamendu araudiari buruz, hau ezarri zen: *“Batzardeak beraren funtzionamendu araudia gertutuko du eta EHAOn argitaratuko da. Erabakiak a), b) eta c) taldeetako gehiengo soilaren bidez hartuko dira...”*

Bestalde, Batzardearen finantzaketari eta araubide ekonomikoari buruz, hau ezarri zen: *“Ekonomi eta finantzazko autonomiaren printzipioari jarraiki, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardeak berarentzako aurrekontua onetsiko eta betearaziko ditu; aurrekontua Euskadiko Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan esleitzen zaizkion kopuruen pentzura finantzatuko da. (...)”*

Ondoren, eta ekainaren 30eko 15/1994 Legearen xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, EGABen ordezkari-tza duten erakunde eta instituzioek Batzardeko kideak izendatu zituzten a), b) eta c) taldeetan, Batzardearen aurreneko osoko bilkuraren deialdia egiteko asmoz.

AURRENEKO OSOKO BILKURA: 1995EKO UZTAILAREN 27AN

Behin Batzardeko kideak, a), b) eta c) taldeetan, izendatu ondoren eta Batzardearen aurreneko osoko bilkuraren deialdia egin ondoren, ekainaren 27ko 341/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EHAO, 132. zk., 1995-07-12), 1995eko uztailaren 27an Batzardearen aurreneko osoko bilkura egin zen.

Garai hartan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu zen Ramón Jauregui Atondo jaunaren esku hartzearekin, adineko mahaia eratu zen: Patricio de la Sota y Mac Mahon jaunak batzardeburu jardutea erabaki zen, batzardekideen artetik nagusiena izatearren eta Mikel Noval Fernández jaunak, ordea, gazteena izaki, idazkari jardutea.

Aurreneko bilkura horretan adituak eta batzardeburu izendatzeko eredu onetsi zen eta ondokoak azpimarratu ziren:

- Batzardeburu lau urtetik lau urtera aldatuko da, eta horretarako errotazioaren sistema erabiliko da a), b) eta c) taldekoen artean; errotazioa ez da nahitaez ordena alfabetikoaren arabera egingo.

- Adituen taldekoak izendatzeko, batzordeburuaren taldeak aditu bi izendatzeko eskubidea izango du eta gainontzekoek, hiruna.
- Batzordeburua proposatzen duen taldeak, taldekideen artean, taldeak izendatu dituen adituen artean edo bi horietatik kanpo dagoen norbait aukera dezake batzordeburugai.

Adituen taldeko kideak izendatzean, talde guztien izendapenak errespetuz hartzea erabaki da eta horrekin batera, horiek karguaz jabetzeko epe jakina ezartzea, Batzordearen eratzte-bilkurarako deia behar bezala egin ahal izateko (1995eko urriaren 11n izango dena).

BATZORDEA ERATZEKO BILKURA: 1995EKO URRIAREN 11N

Behin Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako adituak izendatuta eta Batzordea eratzeko bilkuraren deialdia egin ondoren, urriaren 9ko 439/1995 DEKRETUAN ezarritakoaren arabera (EHAO, 195. zk., 1995-10-11), 1995eko urriaren 11n Batzordea eratzeko bilkura egin zen; bertan izan zen, besteak beste, Jose Antonio Ardanza Garro jaun txit gorena, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria.

Batzordea erakunde gisa eratu baino lehen, batzordeburua eta idazkari nagusia izendatu ziren. Javier Mongelos Oquiñena jauna izendatu zuten batzorduburu eta Javier Hernández Bilbao idazkari nagusi.

Ondoren, Lehendakari jaun txit gorenak Batzordea erakunde gisa eratu zuen. Hitzaldian bere poza azaldu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eratzte-ekintzan egoteko ohorea izateagatik; beraren ustez, Batzordea eratzeko ekintza *“eremu sozioekonomikoan elkarrekin ibiltzen hastea eta hausnartzeko prozesuaren hasiera da eta ziur nago Batzordeak egiten dituen diagnostikoak baliagarriak izango direna oso gaur egun ditugun arazo asko eta askori behar bezala aurre egiteko”*.

Horrezaz gain, Batzordea sortzeko legea egin zenetik denbora ugari igaro zela eta, Lehendakari jaun txit gorenak azpimarratu zuenez *“duela 11 urte Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautzeko Legea onetsi zenean, Jaurlaritzak eta legelariak argi ere argi izan zuten administrazioaren zeregina subsidiarioa izango zela, gizarte eta ekonomiaren agenteek gure herriaren politika ekonomikoan parte hartzeko markoa eta baldintza egokiak sortu behar zituela administrazioak, besterik ez (...). Nahiz eta Batzordea abiarazteko zailtasun asko egon diren, sinesten dugu parte hartzean eta ados jartzean, horixe baita bide bakarra gizarte-adostasuna lortzeko”*.

Bestalde, Javier Mongelos Oquiñena jaunak, Batzordeburu izendatu berriak nabarmendu zuenez, *“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, beste erakunde batzuekin batera, gure gizartea eraikitzea eta egituratzea ditu eginkizun, eta horrela gure Herriari etorkizun oparoa eskaintzea”*. Batzordeburu jaunak, Batzordearen eginkizunen artean, zereginei ekiteko gaitasuna eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera planifikatzen parte hartzea nabarmendu zituen eta aldi berean, azpimarratu zuen *“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea elkarrizketarako eta eztabaidarako erakunde-plataforma da, gizarteko erakunde eta erakunde profesional multzo zabalak ordezkartza duen organo bakarra baita, eta aldi berean, komunikaziorako bide iraunkorra izan behar du ekonomia eta gizarte agenteen eta Jaurlaritzaren artean, haien arteko harremanak erraztuz eta lankidetzaz indartuz”*.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA JARDUNEAN HASI DA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea eratu eta gero, Batzordeak jardunerako barne arauak behar zituen; arauok, sorrera- legean bildu denez, Araudi gisa egingo dira. Horretarako, 1995eko abenduaren 20ko osoko bilkuran hartutako erabakia oinarri hartuta, lantaldea sortu zen osoko bilkurako kideen artean. Lantaldearen buru Batzordeburua izan zen eta idazkari nagusia ere lantaldeko kide zen. Lantaldea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen jardunerako barne araudiaren proiektua gertutzeko sortu zen.

Lantaldeak zenbait bilera egin zituen 1996an EGABen jardunerako barne araudia idazteko asmotan eta kideen artean akats batzuk antzeman ziren Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen legeen idazkuntzan, eta ondorioz, ikuspegi juridikotik interpretazio ez egokiak egin ahal zirela.

Egoera horren aurrean, bada, irizpenak eskatu behar izan ziren administrazio publikoko erakunde ezberdinetara eta ospe handiko profesionaleri; irizpenen horiei esker, aipatutako araudiaren prestaketa bideratu ahal izan zen baina aldi berean, legearen araupeketan, definizioak falta ziren edo definizioak ez ziren zehatzak gai batzuetan, esaterako, urtero memoria sozioekonomikoa gertutzeari buruz. Zehatz esateko, Europako batzorde guztietan memoria egin behar izaten zela urtero eta nabarmendu zen memoria edozein batzorderen funtsezko agiri bihurtu zela.

Egoera honen ondorioz, 1996. urtearen amaieran, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lege-proiektu berria egin beharra zegoela aipatu zen. Lege-proiektuan ondoko gaiei buruzko aldarazpenak egiteko asmoa zegoen: Batzordearen izaera juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren urteko memoria sozioekonomikoa, Batzordeko organoak, ordezkariak duten sindikatuak Batzordeko organo guztietan egotea arautzea, Autonomia Erkidegoan duten ordezkariatasunaren arabera,...

LEGE BERRIA: 9/1997 LEGEA, EKAINAREN 27KOA.

Lehenago ere adierazi dugunez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legearen interpretazioak arazoak sortzen zituen eta horregatik, Legea behin betiko aldatzea ezinbestekoa zen, zehatzago esateko, testu osoa idatzi beharra zegoen, zeren eta ordurako aldarazpenak eginda zituen lege bat (1994an egin zen) berriro aldarazteak testua ulergaitz egingo zuen eta ondorioz, araua ulertzea bera ere ez zen lan erraza izango legelariarentzat.

Hortaz, ekainaren 27ko 9/1997 Legea argitaratzea erabaki zen (EHAO, 141. zk., 1997ko uztailaren 24koa) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautzeko. Lege horren zioen azalpenean jaso zenez, *"Batzordeak garrantzia handia du, ekonomiaren eta gizartearen agenteek Euskal Autonomia Erkidegoko politika sozioekonomikoan elkar hartzeko eta parte hartzeko"*.

Aldi berean, aipatutako zioen azalpenean zera azpimarratu zen, batetik, Batzordearen eragingarritasuna hobetzeko asmotan, 9/1997 Legean sartutako aldarazpenen artean ondoko printzipioak sartu nahi ziren: ordezkariak duten sindikatu guztiak gizartean eta lanaren arloan partaidetza duten erakunde edo izaki guztietan egon behar dutela, bai eta erakunde horietan sortzen diren azpierakundeetan ere.

Era horretara, 9/1997 Legea argitaratu eta gero, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aurreko lege guztiak indargabetu ziren eta Batzordeak, Lege berrian hizpatutakoaren arabera, jardunari eta jarduketeki ekin zien.

Zehatz esateko, jardunerako araudia ikertzeko eta gertutzeko lantaldeak lanean segitu zuen eta azkenean, adostasuna lortu eta Batzordearen jardunerako araudiaren testua onetsi zen, Batzordearen osoko bilkurak 1997ko abenduaren 18an egin zuen bileran eta gero, 1998ko urtarrilaren 16an, erabakia Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.